

Higiezin merkatua Euskal Autonomia Erkidegoa

2023ko 1. hiruhilekoa



Edukia

ORRIALDEA

01	Laburpen exekutiboa	4
-----------	----------------------------	----------

02	Etxebizitza. Jarduera	6
-----------	------------------------------	----------

Euskal Autonomia Erkidegoa
Lurralde historikoak
Udalerrri nagusiak
Auzoak

03	Etxebizitza. m²-ko prezioa	24
-----------	--	-----------

Euskal Autonomia Erkidegoa
Lurralde historikoak
Udalerrri nagusiak
Auzoak

04	Etxebizitza. Batez besteko prezioa	35
-----------	---	-----------

Euskal Autonomia Erkidegoa
Lurralde historikoak
Udalerrri nagusiak
Auzoak

Hiru hilean behingo txostena

1H 2023 2023ko maiatza

Etxebizitza-salerosketen urtetik urterako kopuruak azken urteetako balio handienetatik hurbil dauden mailak erregistratu ditu, eta arindu egin da aurreko hiruhilekoetako beheranzko joera.

Urtetik urterako salerosketa kopurua 1H 2023

23.362

3,7%

Azken urtetik honako aldakuntza

18,1%

Azken 3 urteetako aldakuntza

29,5%

Azken 5 urteetako aldakuntza



Etxebizitza

6.110

1H 2023



Etxebizitza berria

1.212

1H 2023



Etxebizitza erabilia

4.898

1H 2023



m²-ko prezioa

2.898

1H 2023



Batez besteko prezioa

243.165 €

1H 2023



Hipotekak

22.898

1H 2023

Begi-kolpe batean

012
34...




Etxebizitzaren salerosketa

Etxebizitzaren salerosketak. hiruhilekoko (Berriak eta erabiliak barne)


	1H 2023	4H 2022
Salerosketa kopurua	6.110	5.125
Hiruhilekoko aldakuntza	19,2 %	-14,1 %
Urtetik urterako aldakuntza	-4,1 %	6,7 %

Datu garrantzitsu batzuk

Salerosketa kopuruaren hiruhilekoko bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza



M²-ko batez besteko prezioaren urtetik urterako bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza



Etxebizitzaren m²-ko prezioa

Etxebizitzaren salerosketak. Urtetik urterakoa (Berriak eta erabiliak barne)

	1H 2023	4H 2022
m ² -ko batez besteko prezioa	2.898	2.872
Hiruhilekoko aldakuntza	0,9 %	0,5 %
Urtetik urterako aldakuntza	1,4 %	1,2 %

1

Laburpen exekutiboa

Etxebizitza. Jarduera

6.110 salerosketa erregistratu dira EAEn urteko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino % 19,2 gehiago. 2022ko hiruhileko berarekin alderatuta, aurreko urtean baino % 4,1 gutxiago izan dira.

Azken hamabi hilabeteetan 23.362 salerosketa erregistratu dira, aurreko urtean baino % 3,7 gehiago, 2007tik izandako baliorik handienetatik hurbil (4H - 2022, 23.623). Higiezinaren jarduera erlatiboa mila biztanleko 10,71 salerosketatan kokatu da azken urtean, 2007tik izandako baliorik handienetatik hurbil ere bai (4H - 2022, 10,83).

EAEn azken hiruhilekoan egin diren etxebizitza-salerosketa guztien % 50 -3.055 salerosketa- Bizkaiari dagozkio; aurreko hiruhilekoan baino % 12,3 gehiago izan dira. Gipuzkoari EAeko salerosketen % 34,8 dagozkio - 2.126 salerosketa-, aurreko hiruhilekoan baino % 42 gehiago. Arabak % 15,2ko merkatu-kuota lortu du -929 salerosketa-, aurreko hiruhilekoan baino % 2,4 handiagoa.

Etxebizitza erabiliei dagokienez, 4.898 salerosketa erregistratu dira EAEn lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino % 17,9 gehiago eta aurreko urtean baino % 6,6 gutxiago. **Etxebizitza berrietan** 1.212 salerosketa izan dira, aurreko hiruhilekoan baino % 24,9 gehiago eta aurreko urtean baino % 7,4 gehiago.

EAeko **etxebizitzaren salerosketen banaketan**, baretu egin da **etxebizitza erabilien** nagusitasuna: lehen hiruhilekoan salerosketa guztien % 80,17 ziren, maximo historikoetatik urrun (2H - 2022, % 87,46). **Etxebizitza berrien** salerosketak, ordea, % 19,83 ziren. Azken modalitate hori honela banatu da: % 17,41 etxebizitza berri libreak, eta % 2,42 etxebizitza berri babestuak.

EAeko **etxebizitza-salerosketa motei** dagokienez, pisu txikia izan du **familia bakarreko etxebizitzaren** salerosketak, ohikoa den bezala, eta lehen hiruhilekoko salerosketa guztien % 4,4koa izan da. **Etxebizitza kolektiboak** (pisuak) % 95 baino gehiago izan dira berriro; zehazki, % 95,6ko pisua izan dute.



Lehen hiruhilekoan, EAeko **etxebizitza berri libreen salerosketen azalera** 87,8 m² izan da, **batez beste**. Txikiagoa da aurreko hiruhilekoen aldean. **Etxebizitza erabiliaren** azalera 84,5 m² izan da, eta joera beheranzkoa da. **Etxebizitza berri babestuen** salerosketen batez besteko azalera 76,8 m²-koa izan da.

EAEn, azken hiruhilekoan, **pisu-salerosketen** % 42,92ren batez besteko **azalera** 80 m²-tik gorakoa izan da; % 37,49rena 60 eta 80 m² artekoa, % 17,85ena 40 eta 60 m² artekoa, eta % 1,74rena 40 m²-tik beherakoa. Azalera handiena duten etxebizitzaren multzoa serieko minimoetatik hurbil mantentzen da eta, ondorioz, hobetu egiten dira tarteko azalerakoak.

Atzerritarren EAeko etxebizitza-erosketen ehunekoak serieko tarte altuan mantendu dira. Lehen hiruhilekoko erosketen % 3,2, alegia, 195 erosketa, atzerritarrei dagozkie. Azken urtean, atzerritarren erosketak % 3,3 izan dira, 766, hain zuzen.

Ehunekoari dagokienez, Gipuzkoak du lurraldeen arteko emaitzarik altuena (% 3,8); ondoren, Bizkaiak (% 3,4) eta Arabak (% 1,8). Balio absolutuetan, Bizkaia da atzerritarren erosketen buru.

Etxebizitza. m²-ko prezioa

EAeko **etxebizitzaren m²-ko prezioak** azken hiruhilekoetako nolabaiteko egonkortasunari eutsi dio. Hiruhileko batetik bestera % 0,9ko hazkunde arina izan du, ondoz ondoko bost hiruhileko egonkorretan. Urtetik urterako batez besteko prezioa 2.898 €/m²-koa izan da, aurreko urtean baino % 1,4 handiagoa. Balio absolutuetan, 2012tik izandako baliorik handienetako batez besteko prezioak lortu dira.

Etxebizitza berrien urtetik urterako batez besteko prezioa 3.273 €/m² izan da; aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 4,1 handitu da, eta aurreko urtearekin alderatuz % 5,9 handitu. **Etxebizitza erabilien** kasuan, berriz, 2.834 €/m² izan da urtetik urterako batez besteko prezioa, 2007tik izandako baliorik handiena; gora egin du aurreko hiruhilekoaren aldean (% 0,2) eta aurreko urtearen aldean (% 0,5).

Lehen hiruhilekoko urtetik urterako etxebizitzaren metro koadroko prezioari dagokionez, **lurralde historikoen** araberrako emaitzek portaera nahiko desberdina erakusten dute:

- **Gipuzkoak** du, oraindik ere, emaitzarik handiena (3.326 €/m²): aurreko hiruhilekoan baino % 0,6 handiagoa eta aurreko urtean baino % 2,1 handiagoa.
- **Bizkaiko** prezioa 2.787 €/m² izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,3 handiagoa eta aurreko urtean baino % 0,2 handiagoa.
- **Arabak**, batez beste, 2.338 €/m²-ko prezioa lortu du, aurreko hiruhilekoan baino % 2,9 handiagoa eta aurreko urtean baino % 9,5 handiagoa.

Hiriburuetan, etxebizitzaren batez besteko prezioak nolabaiteko atzerakada izateko joera izan du azken urtean, eta hazkunde-tasak arindu egin dira:

- **Donostian**, 5.128 €/m², aurreko hiruhilekoan baino % 0,5 gutxiago eta aurreko urtean baino % 4,3 gehiago.
- **Bilbon**, 2.887 €/m², aurreko hiruhilekoan baino % 1,7 gutxiago eta aurreko urtean baino % 0,3 gehiago.
- **Gasteizen**, 2.520 €/m², aurreko hiruhilekoan baino % 3,4 gehiago eta aurreko urtean baino % 8 gehiago.

Etxebizitza. Batez besteko prezioa

Lehen hiruhilekoan, EAeko **etxebizitza libreen urtetik urterako batez besteko prezioa** 243.165 €-koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,2 handiagoa baina aurreko urtean baino % 1,6 txikiagoa.

Gipuzkoak erregistratu du batez besteko zenbateko handiena (272.500 €), Bizkiaren (235.127 €) eta Arabaren (206.317 €) zenbatekoetatik pixka bat urrun. Bizkaietan, aurreko urtean baino % 3 gutxiago izan da. Gipuzkoan eta Araban, aurreko urtean baino % 0,3 eta % 1,6 gehiago izan dira, hurrenez hurren.

Donostian, batez besteko prezioa 436.986 €/m² izan da, aurreko urtean baino % 2,9 handiagoa. Kopuru horretatik urrun daude Bilbo (244.962 €, aurreko urtean baino % 3,9 gutxiago) eta Gasteiz (217.636 €, aurreko urtean baino % 1,7 gehiago).

Hiru udalerritan erregistratu dira 400.000 €-tik gorako etxebizitzako batez besteko prezioak, eta hamaika udalerritan, berriz, 300.000 € eta 400.000 € artekoak.

2

Etxebizitza Jarduera

Urteko lehen hiruhilekoan, EAEn 6.110 etxebizitza-salerosketa erregistratu dira; hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 19,2 gehiago, baina 2022ko hiruhileko berean baino % 4,1 gutxiago.

Azken hamabi hilabeteetan 23.362 salerosketa erregistratu dira, aurreko hiruhilekoaren urtetik urterakoa baino gutxiago (23.623). 2007tik izandako baliorik handiena izan zen hori.

Bizkaian egin da salerosketa kopuru handiena azken hiruhilekoan, hots, 3.055, aurreko hiruhilekoan baino % 12,3 gehiago, baina aurreko urtean baino % 12,6 gutxiago.

Gipuzkoan, 2.126 salerosketa erregistratu dira, aurreko hiruhilekoan baino % 42 gehiago (horri lagundu dio obra berriaren salerosketek gora egin dutela azken hiruhilekoan).

Araban, 929 salerosketa erregistratu dira, aurreko hiruhilekoan baino % 2,4 gehiago eta 2022ko hiruhileko berean baino % 1,8 gehiago.

Higiezinaren jarduera erlatiboa –mila biztanleko salerosketa kopuruaren arabera neurtua– 10,71n kokatu da, azken urteetako balio handienetatik hurbil (4H – 2022, 10,83).

Hiruhilekoko hazkundeari lagundu dio obra berriaren eta etxebizitza erabilien salerosketek gora egin dutela, % 24,9 eta % 17,9, hurrenez hurren.

Etxebizitza erabiliak salerosketen % 80,17 izan dira, eta etxebizitza berria % 19,83an kokatu da.

Lehen hiruhilekoko etxebizitza-salerosketen % 95,6 kolektiboak (pisuak) izan dira, eta familia bakarreko etxeen pisua % 4,4koa izan da.


Etxebizitza erabilien salerosketen batez besteko azalera 84,5 m²-koa izan da; etxebizitza berri libreena, berriz, 87,8 m²-koa. Pisu-salerosketen % 42,92k 80 m² baino gehiagoko azalera dute, eta % 37,49k, berriz, 60 eta 80 m² artekoa.

Salerosketak, guztira

Lehen hiruhilekoan erregistratutako 6.110 salerosketek % 19,2ko hiruhilekoko hazkundera ekarri dute, eta, horrela, aurreko hiruhilekoetako beheranzko joera (hiru hilez jarraian behera egin du kopuruak) hautsi dute. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz, zeinuak negatiboa izaten jarraitzen du, eta urtetik urterako doikuntza -% 4,1koa izan da. Urtetik urterako emaitzak (23.362 salerosketa) jaitsi egin dira aurreko hiruhilekoko salerosketen aldean (23.623). 2007tik izandako baliorik handiena izan da.

Etxebizitza-salerosketen kopuruaren bilakaera

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketa kopurua

Etxebizitzak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa

23.362

3,7%

Azken urtetik
honako
aldakuntza

18,1%

Azken 3
urteetako
aldakuntza

29,5%

Azken 5
urteetako
aldakuntza

Eskualdea

Euskadi
Bizkaia
Araba
Gipuzkoa

1H 2023

23.362
12.059
3.841
7.462

Urtetik urterako ald.


3,7 %
2,5 %
12,4 %
1,7 %

Salerosketa kopuruaren bilakaera

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Aldia	Salerosketa kopurua	Hiruhileko aldakuntza	Urtetik urterako ald.
1H 23	6.110	19,2 %	-4,1 %
4H 22	5.125	-14,1 %	6,7 %
3H 22	5.967	-3,1 %	7,4 %
2H 22	6.160	-3,3 %	6,4 %


10 mil



Salerosketa kopurua


Salerosketa kopuruaren bilakaera

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketa kopurua mila biztanleko

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Balio erlatiboetan, azken urtean 10,71 salerosketa egin dira mila biztanleko EAEn, azken urteetako balio handienetatik hurbil (4H - 2022, 10,83).

Etxebizitza-eskariak indartsu jarraitzen du, eta joera beheranzkoa da, baina ez hasiera batean aurreikus zitekeena behin bizia.

Interes-tasak igotzeak eta inflazioaren ondorioz aurrezkia gutxitzeak nabarmen aldatu dute agertokia eta hori etxebizitza-salerosketaren jardueraren dinamikan islatuko da.

Salerosketak, tipologiaren arabera

Azken hiruhilekoko hazkundera etxebizitza berrien eta etxebizitza erabilien portaera onaren ondorioz gertatu da.


Etxebizitza berriak hiruhilekoko hazkunde garrantzitsua erregistratu du (% 24,9), eta % 7,4 egin du hobera aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Etxebizitza erabilietan 4.898 salerosketa erregistratu dira: % 17,9 areagotu da aurreko hiruhilekoaren aldean, baina % 6,6 murriztu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Bi kasuetan, salerosketa-jarduera azken urteetako goiko mailan dago.


Salerosketa kopuruaren bilakaera. Berria vs erabilia

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketen aldakuntza-tasa. Berria vs erabilia

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa






Etxebizitza berriaren hiruhilekoko portaera hobekak ekarri du etxebizitza erabiliaren pisua % 80,17ra jaitea. Bada, etxebizitza berria % 19,83an geratu da, banaketa honekin: % 17,41 etxebizitza berri librea eta % 2,42 etxebizitza berri babestua.

Etxebizitza-salerosketen banaketaren bilakaera

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Aldia	Etxebizitza libre berria	Etxebizitza berri babestua	Etxebizitza erabilia
1H 23	17,41 %	2,42 %	80,17 %



Etxebizitza berri librea azken urteetako balio handienetatik hurbil kokatu da.


Familia bakarreko etxebizitzaren eta kolektiboaren salerosketen arteko banaketak erakusten du egoera normaltasunera itzultzen ari dela, familia bakarreko etxebizitzaren pisua handitu ondoren -gutzizkoaren % 7tik gorakoa izatera iritsi zen-.

Lehen hiruhilekoan, familia bakarreko etxeak % 4,4 izan dira, aurreko hiruhilekoan baino pixka bat gutxiago (4H - 2022, % 4,7), eta etxebizitza kolektiboak % 95,6an geratu dira.

Salerosketen pisuaren bilakaera. Kolektiboa vs familia bakarrekoa

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Aldia	Kolektiboa (pisuak)	Familia bakarrekoa
1H 23	95,6 %	4,4 %



Azalera

Etxebizitza-salerosketetan transmititutako batez besteko azalera behera egiten jarraitu du, honako honetan, etxebizitza erabilian izandako portaeraren ondorioz.


Etxebizitza berri libreek, batez beste, 87,8 m²-ko azalera erregistratu dute, aurreko hiruhilekoan baino pixka bat gehiago. Etxebizitza erabiletan, batez besteko azalera 84,5 m²-koa izan da, eta jaitsi egin da aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkunde txikiko bi hiruhilekoren ondoren. Etxebizitza babestuaren batez besteko azalera 76,8 m²-koa izan da.

Pisu-salerosketan % 42,92 batez besteko azalera handiena (80 m² baino gehiago) duten pisuen multzoari dagokio, eta serie historikoaren beheko mailan mantentzen da.

Etxebizitza-salerosketen batez besteko azalaren bilakaera (m²), tipologiaren arabera

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa


Aldia	Batez besteko azalera	Etxebizitza libre berria	Etxebizitza berri babestua	Etxebizitza erabilia
1H 23	84,8	87,8	76,8	84,5



Etxebizitza-salerosketen pisuen banaketaren bilakaera, azalaren arabera

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Aldia	<40 m ²	40-60 m ²	60-80 m ²	>80 m ²
1H 23	1,74 %	17,85 %	37,49 %	42,92 %





Atzerritarrek egindako salerosketak

Atzerritarren eskaria aurreko hiruhilekoa baino pixka bat txikiagoa izan da (-% 0,5), baina gora egin du balio absolutuetan (% 2,1).


Urteko lehen hiruhilekoko etxebizitza-erosketa guztien % 3,2 atzerritarrek egin dituzte (195 etxebizitza-erosketa izan dira). Urtetik urterako emaitza % 3,3koa izan da; hau da, 766 etxebizitza erosi dira.

Lurraldeen arteko emaitzak nabarmenak dira balio absolutuetan, baina ez dira hain nabarmenak ehunekoei dagokienez.

Gipuzkoak atzerritarrek azken urtean egindako erosketen % 3,8 erregistratu du (283); Bizkaiak % 3,4 (412) eta Arabak, berriz, % 1,8 (70). Ehunekoei dagokienez, Gipuzkoa da buru, eta, balio absolutuetan, Bizkaiak lortu du zenbateko handiena.


Atzerritarrek egindako etxebizitza erosketen kopurua eta merkatu-kuota.

EAE. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Atzerritarrek egindako etxebizitza-erosketen ehunekoaren bilakaera


Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Atzerritarrek egindako salerosketen merkatua

EAE eta lurralde historikoak. Hiruhileko artekoa eta urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Atzerritarrek egindako salerosketen kopurua		Atzerriko pertsonen salerosketen %	
Urtetik urterakoa	Hiru hilean behingoa	Hiruhilekoa	Hiru hilean behingoa
766	195	3,3 %	3,2 %
↑ 0,4 %	↑ 2,1 %	↑ 0,1 %	↓ -0,5 %




Lurralde historikoak

Lurralde historikoak	Kop.	Atzerritarren %	Kop.
Araba	70	1,8 %	
Bizkaia	412	3,4 %	
Gipuzkoa	283	3,8 %	

Atzerritarrek egindako etxebizitza-erosketen ehunekoaren bilakaera, nazionalitatearen arabera

EAE. Uterkoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Lurralde historikoak

Salerosketak


Etxebizitza-salerosketen merkatuak gora egin du aurreko hiruhilekoaren aldean, lurralde historiko guztietan; baina, aurreko hiruhilekoaren aldean hobekuntzak izan ditu Araban eta Gipuzkoan eta, beherakada, berriz, Bizkaian.

Urtetik urterako datuek bilakaera positiboago bat erakusten dute ere: emaitza guztiek hobera egin dute. Hurrengo orrialdeetan –lurralde historikoen arabera banatuta daude–, kasu bakoitzaren bilakaera ikus daiteke.

Eskuineko urteko emaitzen bilakaerari buruzko grafikoak erakusten du kopuruak azken urteetako balio handienetatik hurbil daudela.

Salerosketa kopuruaren bilakaera

Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketa kopurua eta merkatu-kuota


Lurralde historikoak. Hiruhilekoko eta urtetik urterakoa
Guk geuk egina, Erregistratzaileen Elkargoaren datuei buruz

Lurralde historikoak	Hiru hilean behingoa	Kuota	Urtetik urterako ald.
Araba	929	15,2 %	1,8 %
Bizkaia	3.055	50,0 %	-12,6 %
Gipuzkoa	2.126	34,8 %	8,2 %

Lurralde historikoak	Urtetik urterakoa	Kuota	Urtetik urterako ald.
Araba	3.841	16,4 %	12,4 %
Bizkaia	12.059	51,6 %	2,5 %
Gipuzkoa	7.462	31,9 %	1,7 %


Etxebizitzaren salerosketa. Probintzien merkatu-kuota

Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Probintzien merkatu-kuotaren bilakaera

Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa






Araba

Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Araba. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Salerosketa kopurua udalerraren arabera, eta merkatu-kuota Arabako udalerrriak. Hiru hilean behingoa

Erregistratzaileen Elkargoa

Udalerrriak	Salerosketa kopurua	Kuota
Vitoria-Gasteiz	695	69,5 %
Amurrio	56	5,6 %
Lantarón	39	3,9 %
Laudio	37	3,7 %
Alegria-Dulantzi	10	1,0 %
Agurain	10	1,0 %
Artziniega	9	0,9 %
Zuia	9	0,9 %
Iruña Oka	9	0,9 %
Gaubea	9	0,9 %
Oyón-Oion	8	0,8 %


Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Araba. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketa kopuruaren bilakaera, tipologiaren arabera

Araba. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa






Bizkaia


Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Bizkaia. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Bizkaia. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketa kopuruaren bilakaera, tipologiaen arabera

Bizkaia. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Salerosketa kopurua udalerriaren arabera, eta merkatu-kuota

Bizkaiko udalerriak. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Udalerriak	Salerosketa kopurua	Kuota
Bilbao	879	28,0 %
Barakaldo	326	10,4 %
Santurtzi	165	5,3 %
Leioa	160	5,1 %
Getxo	154	4,9 %
Portugalete	112	3,6 %
Basauri	98	3,1 %
Sestao	95	3,0 %
Durango	93	3,0 %
Urduliz	90	2,9 %
Erandio	69	2,2 %
Bermeo	52	1,7 %
Iurreta	51	1,6 %
Mungia	49	1,6 %
Galdakao	44	1,4 %
Sopela	44	1,4 %
Abadiño	39	1,2 %
Amorebieta-Etxano	33	1,1 %
Valle de Trápaga-Trapagaran	30	1,0 %
Ermua	29	0,9 %
Ortuella	27	0,9 %
Muskiz	27	0,9 %
Gernika-Lumo	26	0,8 %
Lekeitio	26	0,8 %
Etxebarri	21	0,7 %
Arrigorriaga	20	0,6 %




Gipuzkoa

Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Gipuzkoa. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa


Aldia	Salerosketa kopurua	Hiruhileko aldakuntza	Urtetik urterako ald.
1H 23	2.126	42,0 %	8,2 %



Salerosketa kopuruaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

Gipuzkoa. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa


Aldia	Salerosketa kopurua	Hiruhileko aldakuntza	Urtetik urterako ald.
1H 23	7.462	2,2 %	1,7 %



Salerosketa kopuruaren bilakaera, tipologiaren arabera

Gipuzkoa. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Aldia	Etxebizitza berria	Etxebizitza erabilia
1H 23	411	1.715



Salerosketa kopurua udalerriaren arabera, eta merkatu-kuota

Gipuzkoako udalerriak. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa

Udalerriak	Salerosketa kopurua	Kuota
Donostia	434	20,1 %
Zarautz	241	11,1 %
Irun	158	7,3 %
Eibar	122	5,6 %
Errenteria	109	5,0 %
Mondragón	100	4,6 %
Lasarte-Oria	69	3,2 %
Azpeitia	60	2,8 %
Lazkao	46	2,1 %
Tolosa	43	2,0 %
Pasaia	42	1,9 %
Ordizia	42	1,9 %
Beasain	41	1,9 %
Hondarribia	40	1,8 %
Urnieta	39	1,8 %
Hernani	35	1,6 %
Oiartzun	32	1,5 %
Astigarraga	32	1,5 %
Elgoibar	29	1,3 %
Bergara	27	1,2 %
Azkoitia	26	1,2 %
Andoain	24	1,1 %
Usurbil	22	1,0 %
Zumarraga	20	0,9 %

Udalerriak

EAEko udal-emaitzen ikuspegi grafikoari esker, etxebizitza-salerosketen merkatuaren kontzentrazio-maila handiagoa edo txikiagoa den ikusten da.


Hiriburuak dira erakarpen-gunerik handiena, eta, ondorioz, etxebizitza-salerosketen kontzentrazioa handiagoa da, eta eragin zuzena du inguruko udalerrietan.

Bestalde, nolabaiteko «kostalde-efektua» delakoa dago; hau da, ikusten denez, kostaldeko udalerriek higiezin jarduera erlatibo handiagoa erakarri ohi dute.

Nolanahi ere, jardueraren banaketa nahiko orekatua da; hain zuzen, populazio-tamaina erabakigarria da, eta hiriburuetan eta inguruko udalerrietan kontzentratzeko joera du.

Etxebizitza-salerosketen kopurua

EAEko udalerriak. Azken hiruhilekoa
Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten udalerriak.


Udalerrien artean, hiruhilekoko hazkunde eta jaitsierei dagokienez, nolabaiteko oreka dago, 2022ko lehen hiruhilekoetan ez bezala; izan ere, hazkundea garbi nagusitzen zen.

Balio absolutuetan, populazio-tamaina desberdinekin lotutako alde logikoak daude. Oro har, hiruhilekoko aldakuntzari dagokionez, balioak erdiko mailetara hurbildu dira, beraz, aldakuntzak txikiagoak izan dira.

Eskuineko grafikoak, alde batetik, 2023ko lehen hiruhilekoko etxebizitza-salerosketen kopurua (x ardatza) erakusten du, eta, bestetik, salerosketa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza (y ardatza). Tamainak etxebizitza-salerosketen kopurua adierazten digu.


Beheko grafikoak azken hiruhilekoan etxebizitza-salerosketa gehien izan dituen udalerririk biltzen ditu, baita horien urtetik urterako aldakuntza ere.

Hiruhilekoko salerosketen kopurua eta urtetik urterako aldakuntza
EAEko udalerririk nagusiak. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitza salerosketen kopurua eta urtetik urterako aldakuntza


EAEko udalerririk nagusiak. Hiru hilean behingoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitza-salerosketen kopurua
Bizkaiko udalerrri nagusiak. Hiruhilekoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitza-salerosketen kopurua
Gipuzkoako udalerrri nagusiak. Hiruhilekoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitza-salerosketen kopurua
Arabako udalerrri nagusiak. Hiruhilekoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Bilbao – Auzoak


Grafikoak azken hamabi hilabeteetan Bilboko auzoetan izandako etxebizitza-salerosketen kopurua erakusten du, baita salerosketa kopuruaren urtetik urterako bilakaera ere.

Ardatz bertikalak salerosketa kopuruaren urtetik urterako bilakaera erakusten digu; kasu honetan, jaitsiera arinak pixka bat nagusitzen dira.

Ardatz horizontaleko aldeak higiezin jarduera-mailaren araberakoak dira, eta, normalean, auzoko biztanle kopuruak baldintzatzen du.

Salerosketa kopurua eta urtetik urterako aldakuntza

Bilboko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Grafikoak, alde batetik, eskala logaritmikoan erakusten du 2023ko lehen hiruhilekoko (urtetik urterakoa) etxebizitza-salerosketen kopurua (x ardatza), eta, bestetik, salerosketa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza (y ardatza). Tamainak etxebizitza-salerosketen urtetik urterako kopurua adierazten digu.

Etxebizitza-salerosketen kopurua eta urtetik urterako aldakuntza

Bilboko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa

Erregistratzaileen Elkargoa



Donostia – Auzoak


Grafikoak azken hamabi hilabeteetan Donostiako auzoetan izandako etxebizitza-salerosketen kopurua erakusten du, baita salerosketa kopuruaren urtetik urterako bilakaera ere.

Ardatz bertikalak salerosketa kopuruaren urtetik urterako bilakaera erakusten digu; kasu honetan, jaitsierak nagusitzen dira.

Ardatz horizontaleko aldeak higiezin jarduera-mailaren arabera dira, eta, normalean, auzoko biztanle kopuruak baldintzatzen du.

Salerosketa kopurua eta urtetik urterako aldakuntza


Donostiako auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Grafikoak, alde batetik, 2023ko lehen hiru hilabeteetako etxebizitza-salerosketen kopurua (x ardatza) erakusten du, eta, bestetik, salerosketa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza (y ardatza). Tamainak etxebizitza-salerosketen urtetik urterako kopurua adierazten digu.

Etxebizitza-salerosketen kopurua eta urtetik urterako aldakuntza

Donostiako auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Vitoria-Gasteiz. Auzoak


Grafikoak azken hamabi hilabeteetan Gasteizko auzoetan izandako etxebizitza-salerosketen kopurua erakusten du, baita salerosketa kopuruaren urtetik urterako bilakaera ere.

Ardatz bertikalak salerosketa kopuruaren urtetik urterako bilakaera erakusten digu; kasu honetan, jaitsierak nagusitzen dira.

Ardatz horizontaleko aldeak higiezin jarduera-mailaren araberakoak dira, eta, normalean, auzoko biztanle kopuruak baldintzatzen du.

Salerosketa kopurua eta urtetik urterako aldakuntza


Vitoria-Gasteizko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa Erregistratzaileen Elkargoa



Grafikoak, alde batetik, 2023ko lehen hiruhilekoko etxebizitza-salerosketen kopurua (x ardatza) erakusten du, eta, bestetik, salerosketa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza (y ardatza). Tamainak etxebizitza-salerosketen urtetik urterako kopurua adierazten digu.

Etxebizitza-salerosketen kopurua eta urtetik urterako aldakuntza

Vitoria-Gasteizko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



3

Etxebizitza m²-ko prezioa

EAEko etxebizitza-prezioak egonkor samar eutsi dio, azken hiruhilekoetan bezala, eta, aurreko hiruhilekoan baino % 0,9 hazi da.

Azken hamabi hilabeteetan, urtetik urterako hazkundera % 1,4an kokatu da, hazkunde-tasa txikiak sendotuz. Batez besteko prezioa 2.898 €/m²-koa izan da, 2012tik izandako baliorik handiena.

Aztertutako eremu gehienetan, urtetik urterako tasetan moteltze txiki bat gertatu da, baina prezioen mailak azken urteetako prezio handienetatik hurbil daude.

Etxebizitza berriak hazkunde handiago bat erregistratu du: aurreko hilabeteetan baino % 4,1 handiagoa eta aurreko urtean baino % 5,9 handiagoa, eta batez besteko prezioa 3.273 €/m²-koa izan da.

Etxebizitza erabilien kasuan, batez besteko prezioa 2.834 €/m²-koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,2 handiagoa eta aurreko urtekoa baino % 0,5 handiagoa, eta prezio-egonkortasuneko agertokian kokatu da.

Lurralde historikoek metro koadroko ohiko prezio-diferentzialari eusten diote: Gipuzkoa da buru (3.326 €/m²), gero, tarte batera, Bizkaia dago (2.787 €/m²), eta, azkenik, Araba (2.338 €/m²).

Azken hiruhilekoko hazkunde moderatuenak Bizkaiarenak (% 0,3) eta Gipuzkoarenak (% 0,6) izan dira; Arabak, aldiz, hazkunde handiagoa izan du (% 2,9).

Emaitza horiekin, urtetik urterako tasek nolabaiteko egonkortasuneko agertoki bat erakusten dute Bizkaian (% 0,2) eta Gipuzkoan (% 2,1).

Udalerri-mailako emaitzen banaketari begiratuz, EAEn azken urtean salerosketa kopuru handiena izan duten udalerrietako batez besteko prezioak eta azken urteko bariazio-tasak ikus ditzakegu, baita auzoka ere, hiriburuen kasuan.

Euskal Autonomia Erkidegoa


EAEko etxebizitzaren prezioa nahiko egonkor mantendu da ondoz ondoko azken bost hiruhilekoetan, eta hiruhilekoko tasa % 0,9koa izan da. Urtetik urterako batez besteko prezioa 2.898 €/m² izan da; 2012tik izandako baliorik handiena eta aurreko urtekoa baino % 1,4 handiagoa.

Etxebizitza berriak egin dio ekarpenik handiena hazkundeari; hots, % 4,1eko hiruhilekoko hazkundera izan du, eta etxebizitza erabiliak % 0,2ko hazkundera izan du.

Etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera

EAE. Urtetik urterakoa. €/m²

Erregistratzaileen Elkargoa



↑ m²-ko prezioa

EAE.
Batez besteko prezioa m²-ko. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa

2.898

1,4%

Azken urtetik
honako
aldakuntza

8,4%

Azken 3
urteetako
aldakuntza

18,1%

Azken 5
urteetako
aldakuntza

Eskualdea

Euskadi

Bizkaia

Araba

Gipuzkoa

1H 2023

2.898

2.787

2.338

3.326

Urtetik urterako
ald.

1,4%

0,2%

9,5%


2,1%

Etxebizitzaren prezioaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

EAE. Urtetik urterakoa. €/m²

Erregistratzaileen Elkargoa


Aldia	Etxebizitzaren m ² -ko prezioa	Hiruhileko aldakuntza	Urtetik urterako ald.
1H 23	2.898	0,9 %	1,4 %
4H 22	2.872	0,5 %	1,2 %
3H 22	2.857	-0,0 %	0,8 %
2H 22	2.858	0,0 %	1,7 %



m²-ko prezioa, tipologiaren arabera


Etxebizitza berriaren prezioaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitza erabiliaren prezioaren bilakaera eta urtetik urterako aldakuntza

EAE. Urtetik urterakoa
Estatistikako Institutu Nazionala



Lurralde historikoak

m²-ko batez besteko prezioa


Lurralde historikoen mailan, etxebizitzaren prezioak hiruhilekoko hazkundeak izan ditu; txikiagoak izan dira Bizkaian (% 0,3) eta Gipuzkoan (% 0,6), eta handiagoak, berriz, Araban (% 2,9).

Lurraldeen arteko aldeak –prezio absolutuetan– nahiko adierazgarriak dira, higiezin zikloan antzeko portaera izan badute ere.

Jarduera maila ahula izango da, aurreikus daitekeenez, eta, ondorioz, zertxobait moderatuko dira prezioak, eta baliteke atzera egitea urtetik urterako tasetara arte.


m²-ko batez besteko prezioa

Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



m²-ko prezioaren bilakaera


Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Araba


Erregistratutako etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera eta aldakuntza-tasa

Araba. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioaren bilakaera, tipologiaren arabera

Araba. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Erregistratutako etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera eta aldakuntza-tasa


Vitoria-Gasteiz. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Bizkaia


Erregistratutako etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera eta aldakuntza-tasa

Bizkaia. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioaren bilakaera, tipologiaren arabera

Bizkaia. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Erregistratutako etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera eta aldakuntza-tasa


Bilbao. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Gipuzkoa


Erregistratutako etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera eta aldakuntza-tasa

Gipuzkoa. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioaren bilakaera, tipologiaren arabera

Gipuzkoa. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Erregistratutako etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera eta aldakuntza-tasa

Donostia. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Udalerriak

Metro koadroko prezioaren urtetik urterako udal-emaitzak mapa mailan aztertuta, argi eta garbi ikusten dira lurraldeen arteko aldeak: EAEko zenbait udalerritan, batez beste, 4.000 eurotik gora balio du metro koadroak; beste udalerrri batzuetan, berriz, nabarmen txikiagoak dira prezioak batez beste.

Batez besteko prezio handienak Donostiakoak dira; hain zuzen ere, Donostian, Bilbon eta bi udalerrien inguruan metatzen dira EAEko batez besteko prezio altuenak.

m²-ko batez besteko prezioa

EAEko udalerrri nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten udalerrriak.

Hurrengo grafikoan, begiratu batean, bizitegi-higiezin jarduerari dagokionez adierazgarrienak diren EAEko udalerririk agertzen dira, metro koadroko hiruhilekoko prezioaren eta urtetik urterako aldakuntzaren arabera, eta azken urtean prezioei dagokienez izandako egoera eta portaera erakusten dituzte.

Hiruhilekoko metro koadroko prezioei dagokienez, aldeak handiak dira. Urtetik urterako aldakuntza-tasen arabera portaerari dagokienez, aldeak daude ere, eta tasa positiboak nagusitzen dira.

Grafikoak, alde batetik, 2023ko lehen hiruhilekoko m²-ko batez besteko prezioa (x ardatza) erakusten du, eta, bestetik, m²-ko batez besteko prezioaren urtetik urterako aldakuntza (y ardatza). Tamainak etxebizitza-salerosketen kopurua adierazten digu.

Orrialdearen behealdeko grafikoan, salerosketa gehien izan dituzten udalerrietako urtetik urterako batez besteko prezioak erakustez gain, urtetik urterako aldakuntza-tasak ere agertzen dira, eta azken urtean prezioek izan duten hazkundera nabarmentzen da.


Adierazle nagusien mapa estrategikoa: m²-ko batez besteko prezioa, m²-ko prezioaren urtetik urterako aldakuntza eta salerosketa kopurua

EAEko udalerririk nagusiak. Urtetik urterakoa Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza


EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten udalerririk.

Hiriburuak. Auzoak


Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa
Bilboko auzoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa
Vitoria-Gasteizko auzoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa
Donostiako auzoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza


Bilboko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten auzoak

Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza

Donostiako auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten auzoak



Etxebizitzaren m²-ko batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza

Vitoria-Gasteizko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa

Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten auzoak

4

Etxebizitza Guztizko prezioa

EAEko etxebizitzako batez besteko prezioa pixka bat igo da (% 0,2), eta, horrela, aurreko hiru hiruhilekoetako beheranzko joera hautsi da.

Urteko lehen hiruhilekoko batez besteko zenbatekoa 243.165 €-koa izan da, aurreko urtean baino % 1,6 txikiagoa, eta, aurreko hiruhilekoaren ondoan, eutsi egin zaio urtetik urterako doikuntzari.

Lurraldearen ikuspegitik, Bizkaiko doikuntzak eragin du jaitsiera (-% 0,5), gainerako lurralde historikoek batez besteko zenbatekoetan igoera txikiak erregistratu dituztelako: bai Arabak (% 1,2), bai Gipuzkoak (% 0,3).

Lurralde historikoen arabera, batez besteko zenbatekoetan Gipuzkoa izan da buru (272.500 €), gero Bizkaia, tarte batera (235.127 €), eta, azkenik, Araba (206.317 €).

Lurralde historikoen arteko portaera paralelo samarra izaten ari da, balio absolutuetan aldeak badaude ere.

Emaitzen udalerrri-mailako banaketari erreparatuta, hiriburuetara etorrita, batez besteko zenbateko handienak Donostiarenak (436.986 €) eta Bilborenak (244.962 €) izan dira; biek hiruhilekoko jaitsierak izan dituzte. Gasteizen, batez besteko zenbatekoa 217.636 €-koa izan da, eta hiruhilekoko hazkunde txikia izan du.

Udal mailako lurralde-aldeak nabarmenak dira. Hiru udalerrri 400.000 €-tik gorako zifretara iritsi dira (Donostia, Hondarribia eta Zarautz), eta hamaika udalerritan 300.000 € eta 400.000 € arteko zifrak erregistratu dituzte.

Mapa, grafiko eta taulen bidez, udalerrien portaera ezberdina egiazta daiteke, bai eta hiriburuetako auzoena ere; hartara, etxebizitzako batez besteko prezioaren erradiografia xehatu bat lortu.


Euskal Autonomia Erkidegoa

Etxebizitzako batez besteko prezioa aurreko hiruhilekoa baino pixka bat handiagoa da (% 0,2), eta 243.165 €-tan kokatzen da. Hiruhilekoko hazkundera gorabehera, joera beheranzkoa izaten da da, eta aurreko urtekoa baino % 1,6 txikiagoa da.

Gipuzkoak erregistratu du batez besteko zenbateko handiena (272.500 €), eta, gero, Bizkaiak (235.127 €) eta Arabak (206.317 €). Bizkaian, % 3 jaitsi da aurreko urtearen aldean, eta, Gipuzkoan eta Araban, berriz, pixka bat igo (% 0,3 eta % 1,6, hurrenez hurren).

Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoas



Etxebizitzaren batez besteko prezioa

EAE.
Etxebizitzaren prezioa . Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa

243.165 €

-1,6%

Azken urtetik honako aldakuntza

7,0%

Azken 3 urteetako aldakuntza

15,3%

Azken 5 urteetako aldakuntza

Eskualdea

Euskadi

Bizkaia

Araba

Gipuzkoa

1H 2023

243.165 €

235.127 €

206.317 €

272.500 €

Urtetik urterako ald.

-1,6%

-3,0%


1,6%

0,3%

Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera

EAE. Urtetik urterakoa.
Erregistratzaileen Elkargoa

Aldia	Etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioa	Hiruhileko aldakuntza	Urtetik urterako ald.
1H 23	243.165 €	0,2 %	-1,6 %
4H 22	242.782 €	-0,5 %	-1,6 %
3H 22	243.908 €	-0,7 %	-0,9 %
2H 22	245.636 €	-0,6 %	0,9 %




— Etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioa ■ Urtetik urterako ald.



Lurralde historikoak


Etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioaren urtetik urterako bilakaerak, oraindik ere, lurralde batetik bestera aldeak daudela erakusten du, baina nolabaiteko egonkortze-mailarekin edo are beherakada txikiekin. Datuak konparatuta, m²-ko prezioen maila ezberdinek zehazten dituzte aldeak.

Etxebizitzen batez besteko prezioa
Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Lurralde historikoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa

T.T.H.H ^	Aldia	Etxebizitzen batez besteko prezioa	Hiruhileko aldakuntza	Urtetik urterako ald.
Araba	1H 23	206.317 €	1,2 %	1,6 %
Bizkaia	1H 23	235.127 €	-0,5 %	-3,0 %
Gipuzkoa	1H 23	272.500 €	0,3 %	0,3 %




Araba

Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Araba. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Vitoria-Gasteiz. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Bizkaia

Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Bizkaia. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Gipuzkoa


Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Gipuzkoa. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Bilbao. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaera
Donostia. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Udalerriak

Batez besteko prezioaren urtetik urterako udal-emaitzak mapa mailan aztertuta, argi eta garbi ikusten dira lurraldeen arteko aldeak: EAEko zenbait udalerritan, batez beste, 400.000 €-tik gorakoa da; beste udalerrri batzuetan, berriz, nabarmen txikiagoak dira prezioak.

Batez besteko prezio handienak Donostiakoak dira; hain zuzen ere, Donostian, Bilbon eta bi udalerrien inguruan metatzen dira EAEko batez besteko prezio altuenak.

Etxebizitzaren batez besteko prezioa

EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten udalerrriak.

Etxebizitzaren batez besteko zenbatekoak eta prezioen azken urteko bilakaera hurrengo figuran islatzen da.

Azken urtean etxebizitza salerosketa gehien izan dituzten udalerriak daude irudikatuta.

Eskuineko grafikoak, alde batetik, 2023ko lehen hiruhilekoko etxebizitzaren batez besteko prezioa erakusten du (x ardatza), eta, bestetik, etxebizitzaren batez besteko prezioaren urtetik urterako aldakuntza (y ardatza). Tamainak etxebizitza-salerosketen kopurua adierazten digu.

Bestalde, orrialdearen behealdeko grafikoan, salerosketa gehien izan dituzten udalerrietako urtetik urterako batez besteko prezioak erakusteaz gain, urtetik urterako aldakuntza-tasak erregistratzen ditu, eta azken urtean prezioen hazkundera nagusitu dela ikusten da.

Adierazle nagusien mapa estrategikoa:


Etxebizitzaren batez besteko prezioa, batez besteko prezioaren urtetik urterako aldakuntza eta salerosketa kopurua

EAEko udalerrri nagusiak. Urtetik urterakoa Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza


EAE. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten udalerriak.

Hiriburuak. Auzoak


Etxebizitzaren batez besteko prezioa
Bilboko auzoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren batez besteko prezioa
Vitoria-Gasteizko auzoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




Etxebizitzaren batez besteko prezioa
Donostiako auzoak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa



Etxebizitzaren batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza

Bilboko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa


Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten auzoak

Etxebizitzaren batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza

Donostiako auzo nagusiak. Urtetik urterakoa
Erregistratzaileen Elkargoa




* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten auzoak

Etxebizitzaren batez besteko prezioa eta urtetik urterako aldakuntza

Vitoria-Gasteizko auzo nagusiak. Urtetik urterakoa

Erregistratzaileen Elkargoa



* Ez dira kontuan hartu 30etik beherako salerosketak dituzten auzoak